

**2022KO OTSAILAREN 21EAN
EGINDAKO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Berezia
Data: 2022-02-21
Ordua: Arratsaldeko 20:00etan
Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

EGUNEKO GAI ZERRENDAA:

PUNTU BAKARRA: ELDUAINGO UDALARENTZAT IGOGAILU ETA IBILBIDE IRISGARRI BAT ERAIKITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUAREN BIGARREN SEPARATAKO OBREN ADMINISTRAZIO-KONTRATUA ESLEITZEKO BETE BEHARREKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiari, 2022ko otsailaren 21ean, arratsaldeko 20:00tan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Oihana Amundarain Zubillaga Alkatearen presidentziapean.

Zinegotziak:

- Joel Wepsiec Mariezcurrena (20:00)
- Alain Barandarain Ayerza (20:00)

Ez da batzarreratu:

- Leire Talavera Etxeberria

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari - kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

GAI ZERRENDAA:

PUNTU BAKARRA:

ELDUAINGO UDALARENTZAT IGOGAILU ETA IBILBIDE IRISGARRI BAT ERAIKITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUAREN BIGARREN SEPARATAKO OBREN ADMINISTRAZIO-KONTRATUA ESLEITZEKO BETE BEHARREKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Kontuan harturik proiektua Cristina Burgos Villanueva eta Borja Izaskun Achutegi arkitektoek idatzi dutela eta lanen aurrekontua, 107.293,79 eurokoa da (BEZ sartu gabe): 90.162,85 euro (exekuzio materiala), 11.721,17 euro (gastu orokorrak) eta 5.409,77euro etekin industrialia.

Kontuan harturik aurrekontuaren arabera, kontratazio organoa Udalbatzarra dela.

Osoko Bilkurak gehiengo osoz erabaki du:

LEHENA: Onartzea Elduaingo Udalarentzat igogailu eta ibilbide irisgarri bat eraikitzeko proiektuaren 2. separatako obren proiektua, Cristina Burgos Villanueva eta Borja Izaskun Achutegi arkitektoek egindakoa, 107.293,79 eurokoa da (BEZ sartu gabe): 90.162,85 euro (exekuzio materiala), 11.721,17 euro (gastu orokorrak) eta 5.409,77 euro etekin industrialia.

BIGARRENA: Obra esleitzeko baldintza plegu administratiboa eta plegu teknikoa onartzea

HIRUGARRENA: Kontratu honek eragingo duen gastuari aurre egiteko 2022 urteko udalaren aurrekontutan adinako kreditua egozteko konpromisoa hartzea.

Besterik gabe, 20:15ean, Presidentetzak batzarra amaitutzat jo du, eta akta hau egin dut, nik, idazkari honek, gertaturiko guztia zehatz jasota. Fede ematen dut

O.E.
Alkateak,

Udaleko idazkari - kontu-hartzailea,

Oihana Amundarain Zubillaga,

Maria Pilar Garmendia Miguel